

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK

<b>1. Erakundearen izena:</b>	ARAZI Ideiak Borobiltzen
<b>2. Sektorea:</b>	Kudeaketa, Heziketa, Komunikazio Zerbitzuak. Kultura, ingurumena eta turismo arloan batez ere.
<b>3. Langile kopurua:</b>	40
<b>4. Webgunea:</b>	www.arazi.eus
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Kudeaketa, heziketa eta komunikazio zerbitzuak eskaintzen ditu ARAZI-k.</p> <p>KUDEAKETA-ri dagokionez, Museo eta interpretazio zentroyen kudeaketa eta dinamizazioa da ARAZI-ren lan lerro nagusia. Kultura, ingurumena eta turismoarekin loturiko ekipamenduak kudeatu eta dinamizatzen ditu integralki edo zenbaitetan, bisitariei arreta eta bitartekaritza eskaintzeaz arduratzen da. Ekitaldien antolaketa ere lan lerro honetan txertatzen da. Kultur eta kirol arloko ekitaldiak antolatzen ditu ARAZI-k. Negozio lerro honetan, erakunde publikoak dira bezero nagusiak, baita Fudazioak eta irabazi asmorik gabeko elkarteak ere.</p> <p>HEZIKETA-ri dagokionean, Eskola Agenda 2030, Haurren Hiria, unitate didaktikoen diseinu eta garapena, ... hezkuntza komunitateari zuzendutako zerbitzuak dira. Erakunde publikoak eta ikastetxeak dira bezero nagusiak.</p> <p>KOMUNIKAZIO zerbitzuak bere zentzurik zabalenean eskaintzen ditu ARAZI-k. Aholkularitza eta komunikazio planak garatzeaz gain, ekintzen garapenaz ere arduratzen da, euskarri ezberdinetarako edukia eta diseinua, bai digitalean eta baita euskarri fisikoetan ere (web, ikusentzunezkoak, aldizkariak, etab). Marketin eta community manager zerbitzuak, ondarearen interpretaziorako diseinu eta seinaleztapen proiektuak ere burutzen ditu.</p>

## Harremanetarako datuak

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Amaia Zabala
<b>Helbide elektronikoa:</b>	arazi@arazi.eus
<b>Telefonoa:</b>	943833641

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	<b>Euskara da oinarrizko laneko hizkuntza</b>
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b>  <b>Zer da? Zertan datza?</b>  <b>Nondik dator?</b>  <b>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</b>	<p>Euskarazko C1 maila izatea ezinbesteko baldintza da ARAZI-n lan egiteko, jasotzen diren CV-etatik, baldintza hori betetzen ez duten hautagaiak zuzenean baztertuak izaten dira, eta horrela jakinarazten zaie mezu bidez. Euskarazko C1 maila dutenen kasuan berriz, hautapen prozesu bat martxan ez badago, hautagaien poltsara gehitzen dira eta halaxe adierazten zaie. CV-an euskarazko gaitasun agiririk ez dutela adierazten dutenen kasuan, ikasketak euskaraz burutu dituztela, euskara ama-aita hizkuntza dutela edo-eta euskaraz ahoz eta idatziz zuzen eta egoki komunikatzeko gaitasuna dutela adierazten dutenen kasuan, eurekin hitz egiten da hori kontrastatzeko eta emaitzaren arabera hautagai gisa onartzen dira edo ez.</p> <p>Hautapen prozesu bat martxan jartzen denean, lanpostuaren definizioaren arabera, hautagaiak bete behar dituen ezagutzak hartzen dira kontutan (ikasketak, hizkuntzak, eskarmentua etab.). Hizkuntza eskakizunei dagokionez, hautagai guztiak euskarazko C1 maila izatetik abiatzen dira baina lanpostuak edo bezeroaren zerbitzu kontratuak horrela eskatuta, C2 mailako titulua ere eska daiteke hautapen prozesuko lehen iragazki horretan hautatua izateko.</p> <p>Lan poltsako CV-etatik ezagutzen araberako lehen iragazkia eginda, hautagaiekin elkarrizketa bat egiten da elkar ezagutu eta ezagutzak egiaztatzeaz gain, lanpostuak eskatzen dituen gaitasunen ebaluaketa bat egiteko. Elkarrizketa hauek euskara hutsean egiten dira, eta bertan euskaraz hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasuna aztertzen da, beti ere bere lanpostuari egokituta. Beste hizkuntzei dagokionez, tituluen bidez edo maila balioztatzeke azterketen bidez egiten da balorazio hori. Zenbait kasutan, ingeles maila altuko lan postuak bete behar direnean, elkarrizketan ingelesez ere bideratzen dira galdera batzuk.</p> <p>Orokorrean hautapen prozesu guztia euskara hutsean burutzen da, eta behin pertsona hautatuta, ARAZI-n egiten den harrera prozesuan eta baita ondorengo lan harremanetan, ahozko eta idatzizko komunikazio guztia euskara hutsean izaten da: lan sarien agiriak, lan baldintzak, barne araudia, jarraipen bilerak, urte amaierako bakarkako bilerak, asebetetze inkestak, urteko txostenak etab. Eta noski, bere lan jarduna ere euskaraz burutuko du kasu gehienetan, bezeroak horrela eskatuta beste hizkuntza batean burutu behar diren zerbitzuak kenduta. Horretarako, laneko dokumentazio eta prozesu guztiak euskara hutsean sortzen eta helarazten dira.</p> <p>Bezeroekiko harremanetan euskara lehenesten da, sortzen diren eduki guztietan euskara lehenesten da, euskararen kalitatea</p>

bermatzen da gure lan guztietan eta zalantzak ditugunean elkarri kontsulta egiten da, euskara sustatzea helburu duten hainbat proiektutan parte hartzen da, sare sozialetan euskara hutseko edukiak sortzen dira, ikus-entzunezko edukiak sortzen ere euskarak du lehentasuna, bere garaian gazteleraz sortuta zeuden hainbat testu euskaratzeko ahalegina ere egin da, bai bezeroari zuzendurikoak bai barne prozesuetarako erabiltzen direnak.

Lantaldean euskaraz: astearen hasieran bertan, aste osoari dagokion lanen aurreikuspena egiteko bilera ospatzen da bulegoko langile guztien partaidetza aktiboa sustatuz (bulego berean langile asko dauden enpresa handien kasuan, azpitaldeak antolatu ditzakete). Horrek, hizkuntza amankomunaren oinarria ezartzea baimentzen du, bai mezuen finkapenerako zein terminologia partekatzeko. Beraz, asteleheneko lehenengo ordutik aurrera, lehenengo bilera horretan guztion artean plazaraturikoak nolabaiteko erreferentzi dira. Horrenbestez, hori guztia baliogarria da, bai eduki berriak txertatzeko eta baita berriak ez diren edukiak sustraitzeko ere.

Euskara Mentoring-ak: Arazik bi teknikari ditu Euskara Mentore moduan lanean euren esperientziak, ezagutzak eta trebetasunak gainontzeko lankideekin partekatuz. Euskararen erabilpenaren inguruko zalantzaren bat argitzeko, testuen gainbegiraketarako edo bestelako laguntza emateko erreferentziazko pertsonak dira Arazin. Modu horretan, Arazik euskara maila gorena bermatzen du komunikatzeko, bere barne prozesuetan edo bezeroentzat sortzen diren testu guztietan, eta bide batez, lantalde osoa baliatzen da pertsonalki dituen euskarazko ezagutzak zabaltzeko.


## **PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...**

**(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)**

Araziren barne antolamendua zehazten duten dokumentu guztiak euskara hutsean dira.

## ORGANIGRAMA PROZESUKA/PROIEKTUKA 2021

PERTSONAK, LAN TALDEA			
<b>ZUZENDARIK</b> BIGO ADURDI	<b>TEKNIKARIK</b> JON ADRI	<b>HEZITZAILE AHOLAGARIAK</b> LUIS URRESTI	<b>BEZ-HEZITZAILE</b> ISAKI IURRIBARRIETA
JAVIER ARVURU	IRATXA RIF	ANNA GARCIA	ANXEL LANDE
IZASKUN DUAITI	LAURA KERRA	PAULA GONZALEZ	PAULA ESTEBEZ
<b>PROIEKTU BERRUGAZTEARILK</b> NERRA BARRIZ	<b>TEKNIKARI-HEZITZAILE</b> MADDI ESTEBEREA	ANNA CITOLAZ	ANNA GONZALEZ
AMAA DUAITI	MATxo EGOLA	IZASKUN BARRIZO	JAVIER LARRAZO
<b>TREKARI-KOORDINATZAILE</b> IBIRTE MARTINEZ	EDUA ENKORRE	JAVIER GONZALEZ	JAVIER GONZALEZ
IZASKUN BARRIZO	AMAA ZABALA	ANNA GARCIA	MARIN ARANBURU
NABER FERNANDEZ	IRATXE ARROYO	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN LOPEZ
ENKO SALARRERA	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN BARRIZO	ENKO ISTA
	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN BARRIZO	LUIS LARRAZO
	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN ESTEBEREA
	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN BARRIZO	IZASKUN BARRIZO



Baita egunerokoan lanean erabiltzen ditugun fitxategien antolaketa ere.

- 📁 200000\_Pertsonak\_barne komunikazioa
- 📁 200001\_Formazioa
- 📁 200010\_Gizartearekin konpromisoa
- 📁 200050\_Araziren komertzializazioa
- 📁 200100\_SMR
- 📁 200101 CBM
- 📁 200104\_Askizu aterpetxea
- 📁 200105 Algorri
- 📁 200147\_Ekainberri
- 📁 200150\_NIK TRI 2020
- 📁 200151\_Kultura\_Eskola
- 📁 200153\_Nik Tri Triatloi Elkarte
- 📁 200156\_ZUREKIN Zarauzko ostalaritza elkartearen idazkaritza
- 📁 200200\_UKUE\_pasaporte\_turistikoa
- 📁 200202\_Arrantza liburuxka\_2020 urteko edizioa
- 📁 200203\_Xaguxatar ibilbideko eskuorriak


Bezeroari zuzendutako Araziko katalogoa ere badugu euskaraz, posible den heinean bezeroarekiko harremana ere erabatean euskaraz izaten saiatzen baigara.

# Zentro eta museoen kudeaketa eta dinamizazioa

- Zentroko zerbitzu eskaintzaren definizioa
- Hezkuntza programa
- Komunikazio plana
- Harrera eta bisita gidatuen zerbitzua
- Kalitateko gestio plana inplantatzea
- Merchandisinga eta dendaren kudeaketa



STM BEFF



algorri

B ORISTODAL BALENCIAGA MUSEOA



Santa Maria la Real



STM  
San Telmo Museoa

Lili Jauregia

## Ekitaldien antolaketa

- Kirol ekitaldiak
- Haurrei zuzendurikoak
- Ingurumenarekin loturikoak
- Kultur arloko ekitaldien antolaketa
- Jardunaldiak